



BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak zerbitzu jasangarriak eskainiko ditu bezeroentzat. Gaur egun klima aldaketarekin dugun egoera larri honen aurrean, zerbitzu berri eta jasangarri bat eraman nahi dugu aurrera, non hainbat jabetxe, hotel eta beste hainbat zerbitzu jasangarri eskeiniko ditugun. Zerbitzu hauek eskaintzeko hainbat proiektu sortuko ditugu eta denbora aurrera doan heinean, enpresaren egoera hobetzeko proiektu berriak sortzen joango gara.

Gure proiektua web orri bat sortzea denez, bertan agertuko diren zerbitzu guztiak errebisatuko ditugu adituen bitartez. Hainbat aditu izango ditugu eskaintzen ditugun zerbitzuetara errebisioak egitera joateko. Bertan, hauen kutsadura maila neurtuko dute eta kutsadura hori murrizteko irtenbideak bilatzen saiatuko dira. Kutsadura maila neurtzeko hainbat tresna erabiliko dituzte, eta gure web orrian azalduko diren horiek eskaintzen dituzten zerbitzu desberdinak aztertuko dituzte. Adibidez, argindarra, gasa... Baina baita sukaldean erabiltzen dituzten produktuak eta horrelakoak.

Bestalde, etorkizunerako proiektu berriak pentsatzeko aditu hauen laguntza izango dugu. Hau da, etorkizunean oraindik eta jasangarriagoak izateko zer egin dezakegun aurreikusi eta horren arira, gure adituek proposatuko dizkiguten proposamen desberdinak ikusi, alderatu eta egokiena aukeratuko dugu. Behin berriztagarria eta aurrera ematea posible dela ikustean, proiektua berria martxan jarriko dugu. Adibidez, energia sortzeko eguzki-plakak jartzea izan daiteke, energia modu berriztagarri batean sortzen dutelako eta hauen bidez, gure zerbitzuek gutxiago kontaminatuko lukete.

Proposamen bat ere eskaintzen diegu gure bezeroei klimaren egoera kaxkarrari laguntzeko, baina hau ez da derrigorrezkoa, beraiek nahi badute bakarrik egingo dute, guk animatuko ditugu baina ez derrigortu. Proposamen hau honako hau da: bezeroak gure establezimenduetara iristeko bidaiatu egin beharko dute, izan kotxez, hegazkinez, trenez, autobusez... Garraio guzti hauek kutsatu egiten dute, horregatik, aplikazio moduko bat sortuko dugu, bertan, beraien bidaiaren luzeraren, kilometro kopuruaren, eta garraio motaren arabera zenbat kutsatu duten ikusi ahal izango dute. Kontsumitutakoaren arabera, diru kopuru bat neurtuko dugu, diru hori klimaren aldaketaren kontrako erakunde bati emango diogu, egoera larri hau gelditu dadin.